



EBAZPENA, 2021eko irailaren 13koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baitira zuzendari beraren 2020ko irailaren 28ko eta 2021eko maiatzaren 28ko Ebazpenak, non ezartzen baitira, hurrenez hurren, batzorde barematzaileen egoitzak zein lurralde eta ikastetxean egongo diren Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan (horien bidez, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurak deialdia egin zen, baita espezialitate berriak eskuratzeko ere)

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez (2020ko otsailaren 27ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurak deialdia egin zen, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2020ko irailaren 28ko eta 2021eko maiatzaren 28ko ebazpenen bidez, hautaketa-prozeduretan jardun behar duten Batzorde Barematzaileen egoitzak zein lurraldetan eta egoitzatan egongo diren argitara eman ziren.

Analisi eta Kimika Industrial, Osasun-prozesuak, Ostalaritza eta Turismoa eta Eraikuntza zibilak eta etxegintza Batzorde Barematzailea kokatu behar den lurraldea eta egoitza aldatu behar da.

Horren arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2020ko irailaren 28ko eta 2021eko maiatzaren 28ko ebazpenak. Ebazpen horien bidez zehazten dira, hurrenez hurren, Batzorde Barematzaileak zein lurraldetan eta egoitzatan egongo diren, Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan (Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko, baita espezialitate berriak eskuratzeko ere). Aldaketak honela izango dira:

Analisi eta Kimika Industrial, Osasun-prozesuak, Ostalaritza eta Turismoa eta Eraikuntza zibilak eta etxegintza Batzorde Barematzailearen egoitzaren lurraldea eta ikastetxea honako hauek izango dira:

Lurraldea: Araba

Ikastetxea: Gamarra Ostalaritza eta Turismo Eskola, Presagana kalea 1, 01013 Vitoria-Gasteiz, Araba.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2021eko irailaren 14tik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko irailaren 13an.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO